



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENSA-DEIALDIA

Barikuan, urtarrilaren 25ean (09:30ean). Herri Lan eta Garraioetako Batzordea

Herri Lan eta Garraioetako Batzordeak foru-errepide batzuetako konponketa-lanen gainean egingo dau berba

Bilbon, 2013ko urtarrilaren 24an

Batzar Nagusietako Herri Lan eta Garraioetako Batzordea bihar alkartuko da, barikuan, urtarrilaren 25ean, alde batetik, foru-errepide batzuetako konponketa, irisgarritasun eta mobikortasun neurrien gainean eztabaidatzeko, eta, bestetik, Herri Lan eta Garraio Sailaren titularra dan Itziar Garamendik oposizionoko taldeek planteautako galderei erantzuteko.

Saioa Bizkaiko Talde Popularraren ordezeko bozeramailea dan Jesús Isasiren itaun bategaz hasiko da, “La Avanzada errepideko trafiko-arazoak” berbagai hartuta. Ordezkarri popularraren eretziz, errepide horretan, Leioako tartean, “egunero” sortzen dira “trafiko-arazo handiak puntako orduetan, trafikoaren densidadeagaitik eta galtzada estua dalako”. Hori dala-ta, galdetuko dau “ea Sailak konponbideren bat pentsau dauen, bizkaitarrek ez dagiezan egunero-egunero sufridu foru-errepideen eskaintza txikiak eragindako ohiko pilaketak”. (<http://www.jjggbizkaia.net/Boletin/B5/09/Bv055a.pdf>).

Gai horren ostean, Bildu Taldeak hiru agerpen-eskaera egingo deutsez Herri Lan eta Garraioetako foru diputaduari. Lehenengoa “2012ko Aurrekontu Orokorren txostenean” dago oinarrituta, “Helburu Estrategikoen atalean jasotakoa argitzeko” (<http://www.jjggbizkaia.net/Boletin/B/10/09/Bx072a.pdf>). Bigarren itauna Herri Lan eta Garraio Sailak 2013rako daukazan Aurrekontuen txostenagaz dago erlazionatuta (<http://www.jjggbizkaia.net/Boletin/B/10/09/Bx076a.pdf>). Eta Bildu Taldeak planteauko dauen hirugarren gaiak “Bizkaiko Foru Aldundiaren eta INTERBIAK Soziedade Publikoaren artean sinatutako Hitzarmenaren aldaketa bategaz” dauka zerikusia (<http://www.jjggbizkaia.net/Boletin/B/10/09/Bx074A.PDF>).

FORU-ERREPIDE BATZUEN EGOERAREN GAINEKO EZTABAIDA

Batzorde berean, Bildu Taldeak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamena eztabaidatuko da (<http://www.jjggbizkaia.net/Boletin/B/4/09/Biv225a.pdf>), BI-634, BI-2122 eta BI-3214 foru-errepideetako konponketa, irisgarritasun eta mobikortasun neurriak hartzearen gainean. Gainera, Euzko Abertzaleak Taldeak proposamen horri egindako emendakina be aurkeztuko da. Emendakinaren bitartez, talde horrek Aldundiari eskatzen deutso Sopelanako Udalak errepide horreen inguruan eskatutako neurriak ahalik eta arinen hartzeko, “daukazan eskumenakaz bat badatoz eta esparru horren barruan jokatu.” (<http://www.jjggbizkaia.net/Boletin/B/4/09/Biv225b.pdf>)



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

CONVOCATORIA DE PRENSA

Viernes, 25 de enero (9.30 horas). Comisión de Obras Públicas y Transporte

La Comisión de Obras Públicas y Transporte debatirá sobre mejoras en varias carreteras forales

Bilbao, a 24 de enero de 2013

La Comisión de Obras Públicas y Transporte de las Juntas Generales se reunirá mañana viernes, 25 de enero, para debatir sobre medidas de mejora, accesibilidad y movilidad en varias carreteras forales, por un lado, y para que la titular del Departamento de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, responda a varias cuestiones planteadas por los grupos de la oposición.

La sesión dará comienzo con una pregunta del portavoz suplente del Grupo Popular Vizcaíno, Jesús Isasi, relativa “a los problemas de tráfico en la carretera de La Avanzada”. En opinión del representante popular, “todos los días” en esta carretera a su paso por Leioa, se generan “grandes problemas de tráfico en hora punta, derivados de la densidad del mismo y la estrechez de la calzada”. Por ello, pregunta “si el Departamento tiene pensado alguna solución para que los vizcaínos no sufran un día sí y otro también los atascos acostumbrados derivados de la corta oferta de carretera foral”. (<http://www.jjggbizkaia.net/Boletin/B5/09/Bv055a.pdf>).

A esta cuestión le seguirán tres peticiones de comparecencia del Grupo Bildu a la Diputada Foral de Obras Públicas y Transportes. La primera de ellas está centrada en “la memoria de los Presupuestos Generales de 2012, para aclarar lo recogido en su sección de Objetivos Estratégicos” (<http://www.jjggbizkaia.net/Boletin/B/10/09/Bx072a.pdf>). La segunda pregunta está relacionada con la memoria de los Presupuestos del Departamento de Obras Públicas y Transportes del año 2013 (<http://www.jjggbizkaia.net/Boletin/B/10/09/Bx076a.pdf>). Y la tercera cuestión que planteará el Grupo Bildu tiene que ver con “una modificación del Convenio suscrito por la Diputación Foral de Bizkaia y la Sociedad Pública INTERBIAK” (<http://www.jjggbizkaia.net/Boletin/B/10/09/Bx074A.PDF>).

DEBATE SOBRE LA SITUACIÓN DE VARIAS CARRETERAS FORALES

En la misma comisión, se procederá al debate de la Proposición No de Norma (<http://www.jjggbizkaia.net/Boletin/B/4/09/Biv225a.pdf>) presentada también por el Grupo Bildu, relativa a la adopción de medidas de mejora, accesibilidad y movilidad en las carreteras forales BI-634, BI-2122 y BI-3214, así como de una enmienda presentada a la misma por el Grupo Nacionalistas Vascos. A través de esta enmienda, este grupo solicita a la Diputación que adopte, a la mayor brevedad posible, las medidas que le han sido solicitadas por el Ayuntamiento de Sopela en relación con estas carreteras, “siempre y cuando sean factibles y en el ámbito de sus competencias.” (<http://www.jjggbizkaia.net/Boletin/B/4/09/Biv225b.pdf>)